

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK**Zk-815**

7/2002 FORU ARAUA, urriaren 3koa, Bide Azpiegiturak erabiltzeko Kanona eta «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA» Foru Sozietate Publikoaren Zerga Arloko Zuzenbide Arauen alderdi batzuk arautzen dituena.

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Bide azpiegiturak erabiltzeko kanona eta «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren agentzia S.A.» Foru sozietate publikoaren zerga arloko zuzenbide arauen alderdi batzuk arautzen dituen urriaren 3ko 7/2002 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiak, partikularrek nahiz agintzariekin, bete eta betearazi dezaten.

Donostia-San Sebastián, 2002ko urriaren 3a.

Diputatu nagusia,
ROMAN SUDUPE OLAIZOLA.

HITZAURREA

Azken urteotan ekonomiak izan duen bilakaera onak berarekin ekarri du merkataritza-jarduera eta salerosketak areagotzea, eta hori guztia esparru askotan isolatuta geratu da: besteak beste, trafiko handitu da eta errepideetako trafikoan pilaketak sortzen dira.

Gipuzkoaren orografia berezia dela eta, errepideak egitea oso garestia izaten da nahitaez. Administrazioak kostu horren zati bat besterik ezin du ordaindu. Izen ere, errepideak egitea premiazkoia izan arren, Administrazioaren baliabideak mugatuak izaten dira, eta Europako Batasunaren maila guztietai bereganatutako compromisoak konplitzeko betebeharrera baldintzatuta dago haren zorpetze ahalmena. Beraz, finantzaketa gehigarria beharrezkoa da. Eta horren formulaziorako, dirudienez, egokia da mozkinaren printzipioari eustea: horretarako, erabiltzaileek lor ditzaketen hobekuntzak, zati batean bederen, ponderatu behar dira, eta Administrazioaren nahiz erabiltzaileen partaidetza bideratu behar da errepideak finantzatzean.

Horregatik, foru arau hau prestatu da, oinarritzko bide azpiegituren egite, kudeatze, mantentze eta artatze gastua, zati batean bederen, ordaintzeko kanon bat finkatzearen. Kanon hori ez da errepide guztiak erabiltzeagatik kobraztuko, baizik eta bakarrik kobraztuko da trafikoa pilatzearen ondorioz kostu handiko zabaltze-

JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA**Nº-815**

NORMA FORAL 7/2002, de 3 de octubre, por la que se regula el Canon de Utilización de Infraestructuras Viarias y se regulan determinados aspectos del Régimen Jurídico Tributario de la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.».

El Diputado General de Gipuzkoa

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 7/2002 de 3 de octubre, por la que se regula el canon de utilización de infraestructuras viarias y se regulan determinados aspectos del régimen jurídico tributario de la sociedad pública foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren agentzia-Agencia guipuzcoana de Infraestructuras, S.A.», a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 3 de octubre de 2002.

El Diputado General,
ROMAN SUDUPE OLAIZOLA.

PREÁMBULO

La evolución económica positiva de los últimos años ha conllevado un aumento del comercio y de las transacciones, que tiene reflejo en muchos aspectos, siendo uno de ellos el aumento de tráfico y la congestión de las infraestructuras viarias.

La peculiar orografía del Territorio Histórico determina necesariamente un alto coste en la construcción de infraestructuras viarias. La Administración sólo puede sufragar dicho coste parcialmente, pues es urgente la necesidad de construcción pero los recursos de la Administración son limitados, y su capacidad de endeudamiento está determinada por la obligación de dar cumplimiento a lo establecido en los compromisos de estabilidad presupuestaria asumidos por todas las instancias que componen la Unión Europea. Se impone pues una financiación adicional, en cuya formulación parece adecuado atender al principio de beneficio ponderando, siquiera parcialmente, las mejoras obtenidas por los usuarios y encauzando una coparticipación de la Administración y los usuarios en la financiación de las infraestructuras viarias.

Por ello se presenta esta Norma Foral cuyo fin es establecer un canon de utilización de infraestructuras viarias, que atienda a sufragar, siquiera parcialmente, el gasto de construcción, gestión, mantenimiento y conservación de determinadas infraestructuras viarias básicas. No toda utilización de infraestructuras viarias va a ser obje-

lanak behar dituzten errepideetan. Beraz, errepidearen mantentze kostua izango da irizpide mugatzailea, kostua gehiegizkoa ez den neurrian Administrazioak ordainduko baitu; aitzitik, errepidea zabaltzea, hobetzea edo sarrerak edo luzapenak egitea edo errepide gehiago egitea sozietate publiko bati aginduko zaio, figura horren aruntasunaz eta aldakortasunaz baliaturik.

Zentzu horretan, sozietate publikoari agindutako ustiapena duten errepideei besterik ez zaie lotuko kanona. Beraz, sozietate publiko horrek ordainaraziko du kanona, Foru Administrazioak agindutako eraikuntza edo ustiapena duten azpiegiturak finantzatzeko. Gauzak horela, kanonaren bidez erabiltzaileek eraikuntza edo ustiapenean parte hartzeko modua bideratuko da. Dena den, beharrezkoa denean partaidetza hori osatu ahal izango du, ekarpen bidez, Foru Aldundiak edo bestelako administrazio edo erakunde publikoek.

I. KAPITULUA

AZPIEGITURAK ERABILTZEKO KANONAREN ZUZENBIDE ARAUAK

1. artikulua.— Erabilpen kanona sortzea.

Errepideak erabiltzeko kanona sortu da, eta Gipuzkoako lurralte osoan exijituko da Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoak errepide politikaren barruan egiten dituen jarduketak finantzatzeko erabiliko da.

2. artikulua.— Gaia.

Kanonaren gaia da Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia foru sozietate publikoa S.Ari agindutako ustiapena duten errepideen erabilpena.

Kanon horren bidez bildutakoa foru sozietate publikoak errepide politikaren barruan egiten dituen jarduketak finantzatzeko erabiliko da.

3. artikulua.— Salbuespenak.

1.— Ez daude behartuta kanona ordaintzera Ertzaintzaren eta segurtasuneko gainerako gorputz eta indarren ibilgailuak, ez eta errepideen lurralteetan zerbitzuren bat egin behar duten agintari judizialen ibilgailuak ere.

Ez dira behartuta egongo kanona ordaintzera Gipuzkoako Foru Aldundiaren ibilgailuak eta Bidegi Azpiegituren Agentzia S.Aren ibilgailuak ere, baldin eta bi

to de gravamen por dicho canon, sino que sólo va gravarse la utilización de aquellas infraestructuras cuya gestión determina la necesidad de acometer unas obras de ampliación de enorme coste. El criterio delimitador por tanto va a ser el coste de mantenimiento de la infraestructura viaria, puesto que en la medida en que el mismo no sea excesivo va a ser la propia Administración la que va a sufragar, mientras que un incremento extraordinario del mismo por su ampliación, mejora o la construcción de accesos o prolongaciones o la construcción de nuevas infraestructuras va a ser encomendada a una Sociedad Pública, beneficiándose de la agilidad y versatilidad que dicha figura otorga.

En este sentido, el canon sólo va a gravar aquellas infraestructuras cuya explotación vaya a ser objeto de encomienda a la Sociedad Pública, siendo por tanto esa Sociedad Pública quien vaya a exaccionar el canon para financiar las infraestructuras cuya construcción o explotación le sea encomendada por la Administración Foral. Así, el canon va a conformarse como el vehículo a través del cual va a canalizarse la participación de los usuarios en dicha construcción o explotación. No obstante, dicha financiación podrá ser completada cuando resulte necesario por las aportaciones realizadas por la Diputación Foral u otras Administraciones o instituciones públicas.

CAPÍTULO I RÉGIMEN JURÍDICO DEL CANON DE UTILIZACIÓN DE INFRAESTRUCTURAS

Artículo 1.— Creación del canon de utilización.

Se crea el canon de utilización de infraestructuras viarias exigible en todo el territorio de Gipuzkoa para la financiación de las actuaciones de política de infraestructura viaria que realice la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.».

Artículo 2.— Objeto.

Constituye el objeto del canon la utilización de las infraestructuras viarias cuya explotación corresponda a la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.».

La recaudación de dicho canon se destinará a la financiación de las actuaciones de política de infraestructura viaria que efectúe dicha Sociedad Pública Foral.

Artículo 3.— Exenciones

1.— No estarán obligados al abono del canon los vehículos de la Ertzaintza y demás cuerpos y fuerzas de seguridad, y los de las Autoridades Judiciales que hubieran de cumplimentar algún servicio en terrenos de las infraestructuras viarias.

Tampoco estarán obligados al abono del canon los vehículos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Gui-

kasuotan azpiegitura mantentzeaz arduratzen badira, ez eta anbulantziak eta suhiltzaileen ibilgailuak ere bide azpiegituran lanen bat egiten ari direnean.

2.– Bide azpiegiturak erabiltzeko kanonetik salbuesita geratuko dira Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoari ustiatzeko agindu zaizkion azpiegitura-zatiak, baldin eta haien bakanetik hartuta bideragarritasun ekonomikorik ez badute, kanonaren kobrua kudeatzeko gastuak handiagoak izateagatik kanonaren zenbatekoaren irizpide orokorreia jarrituta espero zitezkeen sarrerak baino, edo Diputatu Kontseiluak hala deklaratzeten badu trafikoari eta lurraldeari buruzko antolaketa arrazoiak direla eta.

4. artikulua.– Ordaintzera behartuak.

Erabilpen kanona ordaintzera behartuta daude Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SAri ustiapena agindu zaien bide azpiegituren erabiltzaile guztiak, baldin eta haietan motorezko ibilgailuan ibiltzen badira.

5. artikulua.– Kanonaren zenbatekoa.

1.– Diputatu Kontseiluari dagokio, Garraio eta Errebidetako foru diputatuak eskatuta, eta Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia foru sozietate publikoak txostena egin ondoren, kanonaren zenbatekooa finkatzea, aldatzea eta eguneratzea. Zenbateko hori urtean behin zehaztuko da distantziaren arabera, zerbitzuaren izaren eta iraupenaren arabera, azpiegituraren narriaduraren arabera, merkatuko egoeraren arabera eta, hala badagokio, merkaturatze kostuaren arabera.

Era berean, kanonaren zenbatekooa egokitua ahal izango da erabiltzaileak azpiegitura finantzatzen zenbatetan laguntzen duen kontuan hartuta.

2.– Nolanahi ere, urte natural bakoitzaz hastean Diputatu Kontseiluak ez badu eguneratu urterako kanonaren zenbatekooa, zuzenean eguneratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreko lehen abuzturako zehaztutako urtearteko prezioen indize orokorrak izan duen barazioaren %95ean.

6. artikulua.– Kanona ordaintzeko momentua.

Errepidea erabiltzerakoan ordainduko da kanona.

7. artikulua.– Kanona ordainaraztea, kudeatzea eta biltzea.

1.– Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoak ordaindu, kudeatu eta bilduko du errepideak erabiltzeko kanona.

puzcoana de Infraestructuras S.A.», en ambos casos, destinados al control y mantenimiento de la infraestructura, ni tampoco los vehículos ambulancias y los de los servicios contra incendios cuando realicen alguna misión en la infraestructura viaria.

2.– Quedarán exentas del canon de utilización de infraestructuras viarias, aquellos tramos de infraestructura cuya explotación corresponda a la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.» que, por si solos, no tengan viabilidad económica por ser los gastos de gestión del cobro del canon superiores a los ingresos que, atendiendo a los criterios generales del establecimiento de la cuantía del canon, fueran previsibles, o bien que así se declare por el Consejo de Diputados en atención a razones de ordenación general del tráfico y del territorio.

Artículo 4.– Obligados al pago

Estarán obligados al pago del canon de utilización todos los usuarios de las infraestructuras viarias, cuya explotación corresponda a la Sociedad Pública Foral Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.», que circulen por las mismas por medio de un vehículo a motor.

Artículo 5.– Cuantía del canon.

1.– Correspondrá al Consejo de Diputados, a propuesta del Diputado Foral de Transporte y Carreteras, y previo informe de la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.», la fijación, modificación y actualización de la cuantía del canon, que se determinará anualmente en función de la distancia recorrida, de la naturaleza del servicio y de su duración, del deterioro de la infraestructura, de la situación del mercado y, en su caso, del coste de su comercialización.

Del mismo modo, la cuantía de dicho canon podrá modularse en atención al grado de contribución del usuario en la financiación de la infraestructura.

2.– En todo caso, si al inicio de cada año natural el Consejo de Diputados no hubiera actualizado la cuantía del canon para el mismo, ésta se actualizará automáticamente, en el 95 por ciento de la variación que haya experimentado el Índice General de Precios interanual del País Vasco, determinado para el mes de agosto inmediato anterior.

Artículo 6.– Momento del pago del canon.

El pago del canon se producirá en el momento de que se utilice la infraestructura viaria.

Artículo 7.– Exacción, gestión y recaudación del canon.

1.– Corresponde a la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.» la exacción, gestión y recaudación del canon de utilización de infraestructuras viarias.

Dena den, Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SAk hirugarren bati agindu diezaioke kanonaren kobruaren kudeaketa, eta elkarlan hitzarmenak hitzartu ahal izango ditu beste lurralte historiko batzuetako errepideak ustiatu edo kudeatzen dituzten entitateekin, kanona kobrau dezaten.

2.- Kanona kobrazeaz arduratzent diren langileek bidezko salaketak formulatu ahal izango dituzte, Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen arabera.

3.- Kanon dinamikoaren edo telekanonaren sistema finkatuta duten errepideetan, gertaerak frogatu ahal izateko, ibilgailuak identifikatzeko erabili ahal izango da edozein sistema edo bitarteko tekniko edo mekaniko edo irudia errepruduzitzeakoa, behin Administrazioak homologatu eta gero. Sistema hori frogabide nahikoa izango da behar den baimenez kanona kobrazeaz arduratzent diren langileek egiten duten salaketan, Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuak 53.1 artikuluan jasotako sistemek erabilpenari buruzko beteharra urratzeagatik finkatutako zigor prozeduraren barruan.

9. artikulua.- Bateraezina izatea beste ordainarazpen batzuekin.

Kanona bateraezina izango da aurreko 1. artikuluan adierazitako errepideak finantzatzeko tasak, prezio publikoak edo kontribuzio bereziak finkatzearekin.

Aitzitik, kanona bateragarria izango da errepideei buruzko beste edozein ordainarazpenekin, baldin eta ordainazpen horrek xede bera ez badu eta, beraz, haren erabilpena kargatzen ez badu. Partikularki, Balio Eran-tsiaren gaineko Zergarekin bateragarria izango da.

II. KAPITULUA BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA SA-REN ZERGA ARLOKO ZUZENBIDE ARAUAK

10. artikulua.- Ondasun Higiezinen gaineko Zergatik salbuestea Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoari agindutako ustiapena duten errepideak.

Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoari ustiatzeko agindu zaizkion errepideak, bideak eta gainerako lehorreko bideak salbuetsita egongo dira, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 4. artikuluaren 1 apartatuan jasotakoaren arabera, nahiz eta haien erabilpena doakoa ez izan.

11. artikulua.- Sozietateen gaineko Zergatik salbuestea Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoa.

No obstante, «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.» podrá encomendar a un tercero la gestión del cobro del canon, así como celebrar convenios de colaboración con entidades encargadas de la explotación o gestión de las infraestructuras viarias en otros Territorios Históricos al objeto de proceder al cobro del mismo.

2.- El personal encargado del cobro del canon, podrá formular las denuncias procedentes conforme a la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

3.- En las infraestructuras viarias que tengan implantado el sistema de canon dinámico o telecanon, para acreditar los hechos podrá utilizarse, previa homologación por la Administración, cualquier sistema o medio técnico, mecánico o de reproducción de imagen que identifique a los vehículos, que constituirá medio de prueba suficiente en la denuncia que formule el personal encargado del cobro del canon, debidamente autorizado al efecto, en el procedimiento sancionador por infracción de la obligación relativa a la utilización de estos sistemas contenida en el artículo 53.1 del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

Artículo 9.- Compatibilidad con otras exacciones.

El canon será incompatible con la imposición de tasas, precios públicos o contribuciones especiales destinados a la financiación de las infraestructuras viarias señaladas en el artículo 1 anterior.

Por el contrario, el canon será compatible con cualquier otra exacción sobre las infraestructuras viarias, siempre que la misma no tenga el mismo objeto y por tanto, grave su utilización. En particular, será compatible con el Impuesto sobre el Valor Añadido.

CAPÍTULO II RÉGIMEN JURÍDICO TRIBUTARIO DE «BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS S.A.».

Artículo 10.- Exención en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles de las infraestructuras viarias cuya explotación corresponda a la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.».

Las carreteras, los caminos y las demás vías terrestres cuya explotación esté encomendada a «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.» gozarán de la exención establecida en el apartado 1 del artículo 4 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, aun cuando su utilización no fuera gratuita.

Artículo 11.- Exención en el Impuesto sobre Sociedades de la Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.».

Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoa entitate salbuetsitzat hartuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 9. artikuluan jasotakoaren arabera.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. GIPUZKOAKO ERREPIDE ETA BIDEEI BURUZKO AZAROAREN 25eko 17/1994 FORU ARAUA ALDATZEA.

Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauaren 27. artikuluko 4 apartatua artikulu horretako 5 apartatua izango da aurrentzean, eta 4 apartatu berria honela idatzita geratuko da:

«4.– Obrak finantzatzeko, Administrazioak zuzeneko kudeaketako erregimenean ustiatu ahal izango ditu errepeideak.»

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.
DESJABETZAPEN PROZEDURETAN
ONURADUN IZAERA
AITORTZEA.**

Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA sozietatea onuraduna izan daitake Gipuzkoako Foru Aldundiak agintzen dituen bide azpiegiturak egiteko behar diren ondasun eta eskubideak derrigorrezko desjabetzapen bidez eskuratzeko prozeduretan.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. ZERBITZUGUNEAK USTIATZEA.

1.– Era berean, errepeideetako zerbitzuguneak ustiatuta finantzatuko dira aurreikusitako inbertsioak.

2.– Diputatu Kontseiluak zerbitzuguneen ustiapena esleitzeko prozedura finkatuko du, bai eta ustiapenaren erabiltzaileak ordaindu beharreko zenbatekoa zehaztu, eguneratu eta berrikusteko irizpideak eta bideak ere. Horretarako, ekitateari, nahikotasunari eta oreka ekonomiko-finantzarioari buruzko irizpideetan oinarrituko da.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

La Sociedad Pública Foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.» tendrá la consideración de entidad exenta del artículo 9 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA.
MODIFICACIÓN DE LA NORMA FORAL 17/1994, DE 25 DE NOVIEMBRE, DE CARRETERAS Y CAMINOS DE GIPUZKOA.**

El apartado 4 del artículo 27 de la Norma Foral 17/1994, de 25 de noviembre, de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, pasa a ser el nuevo apartado 5 de dicho artículo y el nuevo apartado 4 quedará redactado de la siguiente forma:

«4.– La Administración podrá acudir también a la financiación de las obras mediante su explotación en régimen de gestión directa.»

**DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.
RECONOCIMIENTO DE LA CONDICIÓN DE BENEFICIARIO EN LOS PROCEDIMIENTOS EXPROPIATORIOS.**

La Sociedad «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A.» podrá ser beneficiario en los procedimientos de adquisición mediante expropiación forzosa de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de las infraestructuras viarias que le sean encomendadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA. EXPLOTACIÓN DE LAS ÁREAS DE SERVICIO.

1.– Igualmente se financiarán las inversiones previstas mediante la explotación de las áreas de servicio vinculadas a las infraestructuras viarias.

2.– El Consejo de Diputados establecerá el procedimiento a seguir para la adjudicación la explotación de las áreas de servicio así como los criterios y mecanismos para la determinación, actualización y revisión del importe a satisfacer por el adjudicatario de la explotación, basándose en los principios de equidad, suficiencia y equilibrio económico-financiero.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.